Itsasoaren alderik sakonena Monte Garganoko ekialdera dago, Dubrovnik hegoaldera eta Durrës mendebaldera, non dagoen fosa 900 m-ko sakonera baino gehiago duen, eta eta sakonune honen alde txikia, bere hegoaldean, 1460 m-ra arte ailegatzen da. Itsaso

honen batez besteko sakonera 240 metrokoa da. Mendebaldeko kostaldea baxua da, eta iparraldera Po ibaiaren deltaren zingira eta urmaelekin lotzen ditu. Hemengo sedimentuek milia batzuk itsas zabalerantz itsasertzea eramatea lortu dute -hau dela kausa Adria kostaldetik gertu dago-.

Adriatikoko Italiako hiri nagusien artean aipa daitezke: Venezia, Trieste, Ravena, Rimini; Ancona, Giulianova, Pescara, Ortona, Vasto, Termoli, Trani, Brindisi eta Otranto.

Ekialdeko kostaldea, jeneralean, malakartsu eta arrokatsua da, irla askorekin. Istriako penintsularen hegoaldera, Trieste eta Veneziako golkoak Kvarner golkoetik banatzen duela, kostaldeko irlako katea Dubrovnik-eraino hedatzen da.

**Mila uharte baino gehiago**

Uharteak, luzangak eta estuak izan ohi direla (kontinentera paraleloan joaten dira), hamarkada batzuk altzatzen dira -Uharte handi batzuk izan ezik, hots, Brac (bere tontorrik altuena Vidova gora da, 778 m-koa) edo Peljesac (St. Llija da bere tontorrik altuena, 961 metro-



Split.

rekin). Adriatikoko mila irla baino gehiago daude, haietako 66 jendirik gabekoak dira.

Kontinentean, Kotorko badian batez ere, mendiak, sarritan, itsasoaren gainean erortzen dira.

Arroketako kolore arrunta grisa da eta inguruan dagoen landaredia berde iluna, orduna kontrastea nabargarria da oso. Uhartean batzuetako landaredia oparoa da. Adibidez, Montenegro bere izena hartzen du itsasertza estaltzen duten pinudietatik. Beste aldetik, Korcula irlako izen greziarra Korkyra Melaina da, honek "Korfu Beltza" esan nahi du.

Adriatikoko itsasoko ekialdeko kostaldeko hiririk nagusienak hauexek dira: Izola, Koper, Piran eta Portoroz Eslovenian, Umag, Porec, Rovinj, Pula, Opatinija, Rijeka, Senj; Zadar, Biograd, Sibenik, Trogir, Split, Makarska, Ploce eta Dubrovnik Kroazian; Neum Bosnian eta Hertzegovina, Herceg Novi, Kotor, Tivat, Bar, Budva, eta Ulcinj Montenegro; eta Durrës Albanian.

Itaso Adriatikokoan, ipar-ekialdeko haizea, bora izenekoa, eta bat bateko haize-bola-



dak norabide honetatik edo hego-ekialdetik agertze direla, oso arriskutsuak dira neguan nabigatzeko. Hegoaldeko haizeak ere agertzen dira -sirokoak-. Hauek euriak egiten dituzte neguan. Mendebaldeko haizeek -maestralak- eguraldi ona lortzen dute udan.

Itsaso honetan marearen mugimendua lasaia da.







## KARIBEAR ITSASOA

*Karibear itsasoa Ozeano Atlantikoko itsaso tropikal zabala da. Erdialdeko Amerikako ekialdera eta Hego Amerikako iparraldera kokatuta dago. Karibeko Plakaren azalera estaltzen du. Antilletako itsasoa ere esaten diote, izan ere, Antilletako Arkuaren hegoaldera eta mendebaldera dago. Munduko itsaso gazirik handienetarikoa da. 2.754.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du.*



**K**aribear itsasoko alderik sakonena Kaiman uhartearen fosa da, zein Kubaren eta Jamaikaren artean dagoen -itsas mailatik 7.686 metroz azpitik dago-. Dena den, itsaso hau beste itsasoekin konparatu ondoren, ez dela hain sakona esan daiteke.

Karibeko kostaldeko zerrendak golko eta badia asko ditu, haien artean aipa daiteke: Venezuelako golkoa, Morrosquilloko golkoa, Dariengo golkoa, Mosquitos golkoa, eta Hondurasko golkoa.

Itsaso honek Panamako kanalaren bidez Ozeano Pazifikoarekin komunikatzen da eta iparraldera mugatzen du Antilla Handiekin -Kuba, Haiti, Dominikar Errepublikak, eta Puerto Rico-; ekialdera Antilla Txikiekin, hegoaldera Venezuelak, Kolonbia eta Costa Ricarekin; eta mendebaldera Mexiko, Belize, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Costa Ricarekin.

"Karibea" hitza Karibear itsasoari,



eta han dauden lur kontinentalei eta uharteei esaten diete.

### 160-180 milioi urteren artean

Ematen du itsaso honek 160-180 milioi urte dituela. Mesozoikoan zehar, haustura horizontal batek Pangea -superkontinentea- banatu zuen eta itsaso hau sortu zen.

Karibear itsasoaren azalera bost ardo ozeanikoetan banatzen da, urpeko mendikate batzuek banatzen dituzte. Karibeko ekialdeko Hego Amerikako plakak egiten duen presioagatik, Antilla Txikietan ekintza bolkaniko handia egon ohi da, horrela aipa daiteke 1902.urtean gertatu zen Pelee mendia-  
ren erupzio bolkanikoa, XX.mendearen



zehar, erupzio honek hildako gehienak eragin zituela.

La Anegada pasalekuaren (Antilla Txikiak) eta Birjina uharteen arteko pasagunearen bidez eta Los Vientos pasabidearen bidez

(Kubaren eta Haituren artean) Ozeano Atlantikoa Karibear sartzten da. Ibilbide hau AEBren eta Panamako kanalaren arteko bide nagusia da. Yucatango kanalak Karibear itsasoa Mexikoko golkoarekin lotzen du (Yucatango penintsularen eta Kubaren artean).

### Ozeano-fosak eta itsaslasterrak

Karibear itsasoaren urpeko lurzorua bi ozeano-fosa ditu: Kaiman-







ATLANTIAR OZEANOKO ITSASOAK

>> KARIBEAR ITSASOA

go fosa eta Puerto Ricoko fosa. Hauek hemengo lurrikaden errudunak dira.

Urpeko lurrikarek tsunamiak eragiten dituzte eta uharteetan efektu hondatzaileak izan ditzakete. Datu historiko-zientifikoen arabera, azken 500 urtetan, karibear hama-bi lurrikara gertatu dira (Richterskalan 7,5-eko magnitudetik gainera)

Batezbestekoan, Karibear itsasoaren gazitasuna 35-36 alde bider miliakoa da, eta azaleko temperatura 28°C-koa da, itsasoaren hondoko tenperatura, berriz, 4°C-koa da.

Karibeko ur-lasterrek ur asko eramaten dituzte Ozeano Atlantikotik (Antilla Txietako pasabideetatik) iparalderantz,



Mexikoko golgora ateratzeko (Yukatan-go kanalan zehar).

Kariben, azaleko uraren %15-20 Orinoko eta Amazonas ibaietako estuarioetatik dator. Karibeko ur-lasterrek ur geza hauek ipar-mendebaldera eramaten

ditu. Beste aldetik, Orinokon erortzen diren prezipitazioek klorofila-kontzentrazio handiak eragiten dituzte itsasoaren ekialdera.

Kolonbia eta Nikaragua-ko iparraldean, urte osoan zehar zirkuliformako korrontea agertzen da -erlojuaren orratzen kontrako norazkoan biratzen dena-

Eskualde honetako



Belice Uhartea.

prezipitazio gogorrek ur-laster hau eragiten dute, baina hauek ere tenperatura jaitea, gazitasuna eta ur-dentsitatea gehitzea dituzte. Uretara elikagai batzuk ematen dituzte, hots, nitrogenoa, fosforoa, eta landareek erabiltzen dituzten beste batzuk.

**Ozeano-itsaslasterrekin kliman eragin handia dute**

Golko eta Humboldt-eko ozeano-itsaslasterrekin Karibeko kliman eragin handia dute.

Itsasoaren kokapen tropikalari esker, urak tenperatura altua edo epela izan ohi du -21°C eta 32,2°C artean urte osoan zehar.

Mendebaldeko hemisferioko urakan batzuk Kariben sortzen dira. Kariben, urakan-garaia ekaina eta abendua bitartean gertatzen da eta gogorrenak, abuztua eta iraila bitartean. Batezbesteko bezala, urtero 9 ekaitz tropikal egon ohi dira eta bostek urakanaren intentsitatea hartzen dute. Karibeko Urakanezko Zentro Nazionalaren ustez, 1494-1900 urteen artean, 385 urakan sortu ziren.

Afrikako ekialdeko kostaldean gertatu



ziren haize-lasterrek, Atlantiar Ozeanoan zehar, beren ibilbidea egiten dute. Hauteko batzuk ekaitz tropikal bihurtzen dira eta Atlantikoan ere urakan bihurtu daitezke, Ekialdeko Karibeko presio baxuen lekuetan batez ere.

Urakanik hondartzaileen artean hauek dauzkagu: San Calixto II. 1780ko urriaren 19-16 egunen artean, zeinek Antilla Txikietatik, Puerto Rico, Dominikar Errepublikara, eta agian Floridatik pasatu zen,







ATLANTIAR OZEANOKO ITSASOAK

>> KARIBEAR ITSASOA

22.000-24.000 hildako utziz; Mitch urakanak, Karibe kolonbiarrean sortu zela, eta Erdialdeko Amerika -Yucatango penintsula arte- eta La Florida zeharkatu zuen 1998ko urriaren 22-tik azaroaren 5-era arte, 11.000-18.000 hildako utziz. Urakanak, bere izarea hondatzaileagatik, Karibeko uharteetarako urteko arazo da. Koralezko arrezifeak agortzeko zorian daude urakanengatik, izan ere, haietan harea, lohi, sedimentu eta arroka asko botatzen dituzte.

**Munduko isurialde hidrografikorik handienetarikoa**

Karibeko isurialde hidrografikorik munduko hedatuenetarikoa da. Hantxe bere urak isurtzen dituen ibairik luzeena Mag-

dalena ibaia da, zeinek Kolonbia zeharkatzen duen Kolonbiako mendigunetik (1.540 km-ko luzera). Magdalena ibaiak, bere aldetik, beste ibai batzuen urak hartzen ditu: Cauca eta Cesar ibaietatik. Kariben beren urak isurtzen dituzten beste ibai batzuk hauek dira: Unare, Tocuyo, Catatumbo, eta Chama Venezuelan; Rancheria, Sinu eta Atrato -Kolonbian-; San San, Chagres (Panamako Kanala) eta Changuinola -Panaman-; Grande, Prinzapolca eta Huahua -Nikaraguan-, San Juan -Nikaraguako eta Costa Ricako mugen artean-, honek Cocibolca lakua Karibearekin lotzen du; Segovia, Honduras eta Nikaraguako mugan; Patuca, Sico, Aguan, eta Ulua -Honduras-; Motagua -Guatemalan-; Belize -Belizen-; Hondo Ibaia -Mexikon-; Cauto -Kuban-; Hego Yaque, Ozama, Nizao Ibaia, Haina Ibaia, Chavon Ibaia, eta Macoris -Dominikar Errepublikan-; Negro -Jamaikan- eta Grande de Patillas-Puerto Rico. Ibaien bokaletan sortzen diren estuarioek ekosistemak



eta bizimodu bereziak eragiten dituzte. Ingurune honetako oinarrizko baldintza ekologikoak gazitasunean daude. Urtean zehar gazitasunak gorabehetak ditu: ur geza-ekarpenak, materia organikoz eta elikagaiz beterik. Hauei esker, ekoizpen biologikoa oso handia da. Baina ur hauek dituzten sedimentuek uhertu egiten dute. Gainera, Karibeko kostaldeko urak argi-agoak dira baina ez dira bezain emankorrak edozein estuariotan daudenak. Marakaiboko lakua ere nabaritzen da, Venezuelako golkoaren bidez, Karibekin lotzen da. Hego Amerikako lakurik handiena da -13.820 km<sup>2</sup>-ko azalera du-, eta planetako zaharrenetarikoa ere da.

**Karibear etniatik izen erratorria**

Itsaso honen izena Karibetar etniatik dator. Etnia amerindiar honek europarrekin lehenengo harremanetan -XV. mendearan amaieran- nagusitu zuen alde honetan, Americo Vesputio nabigatzaile italiarrak baieztatzen zuen Charaibi hitzak "Gizon

*jakintsuak*" esan nahi zuela indigenen artean eta agian, indigenek izen hau erabili zuten europarrei deitzeko Amerikara heltzean. Mendebaldeko Indien aurkikuntza ondoren (Kristobal Kolonek) Antillak hitz espainiarra leku honetan arrunta izan zen. Beretik eratorria, "Antilletako itsasoa" Europako hizkuntza batzuetan izen arrunta izan da Karibetar itsasorako. Aurkikuntza egin ondoren -hamarkada askotan zehar-, Espainiaren jabetzako lurra ukazina izan zen itsaso honetan, eta hau dela kausa "Antilletako itsasoa"ren izena urte askotan zehar mantendu egin zen.

Antilletako lehenengo biztanleak Tainoak izan ziren. Tribu sedentarioa izan zen. Bere erlijio-sinesmenak politeistak ziren. Nekazari, arrantzale eta buztinlari onak izan ziren. Bere hizkuntza Arawak-enganetik dator. Familia horretatik etorri ziren, Hego Amerikatik migratuz -duela 3.000 urte inguru-. Aurkikuntzaren unean, karibeak nabigatzaile eta gurlari onak ziren.







ATLANTIAR OZEANOKO ITSASOAK

>> KARIBEAR ITSASOA



Cancún, Mexiko.

Eskualde honetan bizi ziren eta Orinoko ibaiaren ertzetik zetozen, gainera Tainoen lurraldeak konkistatu nahi zuten momentu hartan. Europarren lehenengo kroniken arabera, karibeek giza-haragia jaten zuten, eta ideia hori “*kanibal*” hitzan markaturik geratu da.

1942.urte arte Karibe zeharo ezezaguna izan zen Europan eta Asian. Urte horretan Kristobal Kolonek lehenengo aldiz nabigatu zuen Indiarako bidea aurkitzeko.

Irla hauek aurkitu ondoren, mendebal-

deko zibilizazioek aldea oso azkar kolonizatu zuten, Europarako bide komertzial arrunt bihurtuz, halaber esan behar da pirateria hazten hasi zela. 1495.urtean Errege Katolikoek beren mendeko guztiak ontziak tripulatzeko utzi zuten Indietara joateko. Hau dela kausa presaketarik gabeko ontzi asko hara joan ziren piraten eskuetan eroriz.

Garai hartan Karibeko kostaldeetan oso azoka ospetsuak egiten ziren -Potobelo-koa bezala-. Feria honek 40 egun irauten zuen eta piratek behin eta

berriro erasoak egiten zituzten, hau dela kausa espainiarrek San Lorenzo fortea raiki zuten XVI.mendearen amaieran. Karibeko beste portu batzuetan arazo bera gertatu zen, esate baterako, Cartagena de Indias eta Habana, non gotorleku militarrek eraiki ziren, Afrikako esklaboak hara eramanez.

Espainiaren aurkikuntza eta betetzea ondoren, itsasoak



Birgina uharteak.



Inglaterrako eta Frantziako koroak erakusten zituen eta eskarmentu handiko marinelak bidali zituzten lurralde berriak konkistatzera: Martinika eta Guadalupe uharteak (Frantziarentzat) eta Montserrat, Barbados eta Jamaika (Inglaterrarentzat). Hauek Espainiako galdutako ondasun

garrantzitsuenak izan ziren. 1625.urtean, Dortoka uhartean bi nazionalitateetako bukaneroek eta piratek elkartea sortu zuten Espainiako kolonietako itsasontziak erasotzeko; handik -XVII.mendearen amaierara arte- espedizioak ateratzen ziren kostaldeko herriak hondatzeko. Beste piraten gune ospetsua Port Royalgo portuan (Jamaika) ezarri zen 1656an, baina 1692ko ekainaren 10an izugarrizko lurrikadak hondatu zuen. Eskulade honetan pirata batzuk oso ospetsuak izan ziren, hots, Morgan, El Olonés eta Barba Negra (Bizar Beltza).

XIX.mendetik aurrera, herri kolonizatuak independizatzen hasi ziren, nahiz eta gaur egun Frantzia, Ingalaterra eta Holandako herri batzuk Europako administrazioaren menpe dauden. Bere uretan 22 uharte eta 12 herrialde daude, Kubak Espainiatik independitzia lortu zuen azken herrialde izan zen 189.urtean.

1903.urtean, AEBko parte-hartzearekin, Kolonbiatik Panama banatu zen eta Panamako kanala eraiki zen (Karibear itsasoa Ozeano Pazifikoarekin komunikatzen







ATLANTIAR OZEANOKO ITSASOAK

>> KARIBEAR ITSASOA

dela).1914ko abuztuaren 15ean inauguratua izan zen baina AEBk gobernatu zuten 1999ko abenduaren 31 arte. 2001ko abenduaren 12an, Karibeko Estatueteako Elkarteak, Margarita uhartean bildurik (Venezuela), Margaritako Deklarazioa egin zuten: “Karibear itsasoa denen ondare bezala onartuz, eta ezinbesteko aktiboa, zeini lehentasuna eman behar diogun bere kontserbaziorako” gainera helburua dute: “Karibeko

identitate bera egitea” eta “Karibe Handiko eskualdea Kooperazio-aldea izango dela” hitzeman dute, eta “hasieran denen ekintzak AEEko lehentasun-erlotan izango dira, hau da, Merkataritza, Turismo Jasangarria, Garraioa eta Hondapen Naturalak”.

**Karibeko flora eta fauna**

Itsaso honetako florak biodibertsitate handia du. Kariben 13.000 landare-espezie daudela balioztatzen da eta haietatik 6.500 baino gehiago endemikoak dira Aurkitzen diren landare batzuk hauexek dira: olibondoa, Dominikar Errepublikan hazten dela; kaimittoa Karibeko eskualde honetatik hazten dela, guaiakoa (Jamaikako lore nazionala), zeiba (Puerto Ricoko eta Guatemalako lore nazionala) eta kaoba (Dominikar Errepublikako zuhaitz nazionala). Karibeko fauna klima subtropikalekoa da, itsaslaster beroek eragina handia dute. Bere espezieen %42 tan endemikoa da.450 arrain-espezie daude, esate baterako, barrakuda, mero zuria, itsasugea, eta karazinoen familia batzuk. 600 hegazti-espezie ere daude, haietatik 155 hegazti



endemikoak dira, hots, “cortacubas” izenekoa (espezie endemikoa eta Karibeko espezie zaharrenetarikoa); hegazti gehienak migratzaileak dira, adibidez mangladiko kanario, eta lertxun berdea. Bidlife Internationalaren esanetan, 2006.urtean, Kuban agortzeko zorian 29 hegazti zeuden eta bi ofizialki agortuak. Agortzeko zorian dauden espezieen artean: Puerto Ricoko amazona, yakutinga, eta sabanako usoa. Kariben, jadanik 500 narrasti-espezie daude, haietatik %95 endemikoak dira: iguana berdea eta iguana urdina, Kaiman Handia uharterko endemikoa, eta biak agortzeko zorian; Monako iguana (Monako uharterko endemikoa -Puerto Rico-), errinozero iguana (Dominikar Errepublikakoa) eta krokodilo amerikarra -agortzeko zorian daudela- (Karibeko uharteetatik, Erdialdeko Amerikatik eta Hego Amerikako hegoaldeetik hedaturik), itsas dortoka espezie batzuk ere (karey dortoka). Kariben 170 anfibio endemiko-espezie des-



kribatu dira eta anfibio global-txostenaren arabera, 2004.urtean, anfibioen %80 baino gehiago agortzeko zorian zeuden Dominikar Errepublikan, Kuban, eta Jaimaikan eta %95 Haitin. Adibidez, urre-koloreko koki-espeziea galtzeko bidean dago. Kariben 90 ugaztun-espezie daude, hango ugaztunen artean hauexek dauzkagu: isurdea, manatia, almikia (Antilletako endemikoa) sagusar-espezie batzuk eta balea konkorduna -espezie migratzaile bezala-. Azken mendeetan beste espezie batzuk agortu dira gizonaren eskutik, adibidez, Karibeko itsas txakur fraidea. Azken 1.500 urteetan Antilletako ugaztunen %90 agortu egin ziren.







ATLANTIAR OZEANOKO ITSASOAK

## SARGAZO ITSASOA

*Sargazo itsasoa Ipar Ozeano Atlantikoko eskualdea da. 3.500.000 km2 azalera du. normalean, hantxe ez dago haize-lasterrik ezta itsaslasterrik ere, baina, berriz, plakton eta laga asko egon badaude. Hauek azaleko itsas basoak eragiten dituzte, honek eta haizerik ezak, Amerikako aurki-kuntzatik nabigaziorako harkaitza bikaina eragiten dute.*

Munduko itsaso bakarra da, non bere ezaugarri biologikoek eta fisikoez mugatzen duten (Hauek ez dute kostalderik sartzen). Itsaso hau obalatua da eta bere mugak oso lausoak dira, izan ere, ez du lehorra bainatzen, Bermudak izan ezik-. Itsaslaster ozeaniko nagusiek muga hauek jartzen dituzte: mendebaldera, Golkoko Itsaslasterra; iparraldera Ipar Atlantikoko Itsaslasterra, eta hegoaldera Ekuadorreko itsaslaster bat.



Inguratzen duten itsaslasterrek azaleko ur-sistema mugatzen dute, hauek bero samarrak dira eta elojiaren orratzen kontrako noranzkoan biratzen dira, ozeanoko sakonera handiko ur gainetik, hotzagoak eta dentsuagoak. Temperaturaren desberdintasunak, dentsitatearen arabera, uraren estratifikazioa eragiten dio, ondorio ekologiko garrantzitsuak izanez. Azaleko uretan, non argia ailegatzeko den, plakton begetal asko dago. Hauek nitratoak eta fosfatoak jaten dituzte. Dentsitatearen desberdintasunaren arabera, azaleko ura ez da beheko geruzetan dagoen ur hotzarekin nahasten (ur hotz hau mineraletan



aberatsa da oso). Hau dela kausa, Sargazo itsasoen goiko eskualdeetan ia ez dago animaliarik, eta ez luke interes biologikoa izango sargazoak ez izatekotan. Sargazoak (*Sargassum* generokoa) zelai handiak eragiten ditu, itsas organismoz beteta daudenak. Kristobal Kolonek bere lehenengo bidaiari Amerikara Sargazo itsasoa aurkitu zuen.

### Sargazo itsasoaren historia

Portugalgo nabigatzaileek algari eta itsasari izena jarri zieten. Sargazoa alga mota da, zeinek zelai handi nahastutak egiten dituen, beti ur gainetik mantentzen dira, gas-maskuria izategatik, horizontera arte hedatuz. Algek, sarritan, Portugalgo itsasontziak geldiarazten eta trabatzen zituzten. Horri esker, tripulazioak aske zuten alga hauek ikasteko. Portugalen mahats asko daudenez, gas-maskuriak mahatsmordoak ematen zaizkien, mahats mota hori salgazo esaten zioten, eta handik datorkio bere izena. Kostaldetik gertu dauden arroken gainean -itsatsitak- alga mota hauek hazten dira eta haietatik sargazoak datozkigu, baina orain

bizitza pelagikora moldaririk daudenez, ozeanoaren goiko aldean flotatzen dira. Urte osoan zehar aingirik itsaso hau aukatzen dute erruteko. Azalari buruz hitz egiten badugu, itsaso hau AEBren herena dela esan dezakegu. Sargazoaren itsasoak bela-nabigaziorako harkaitza bikaina eragiten du, eta horri esker, kondaira eta mito asko agertu dira, baita fiziozko filmak ere. Sargazoaren kondaira baten arabera, algen ugaritasuna hondar-pilaren seinalea zen (oker izanez), eta horren ondorioz "urpetutako kontinentea" hor zegoela esaten zuten -Atlantida-. Egia esateko, alde honetako batez besteko sakonera 450 m-koa da.







ATLANTIAR OZEANOKO ITSASOAK

## MEXIKOKO GOLKOA

*Mexikoko golkoa itsas arroa da, zein Mexikoko, AEBko eta Kubako itsasertzen artean dagoen.*

**M**exikoko golkoa eta Karibear itsasoa Atlantiar Ozeanoko bi itsas eskualde dira. Amerikako kontinenteak eta uharte batzuek inguratzen dute. Hau dela kausa, “*Mediterraneo ameri-*

*karra*” ere esaten zaio.

Mexikoko golkoak plataforma kontinental handiak dituen bitartean, Karibeko platafomak txikiagoak dira eta 2.000-3.000 m-ko sakonerako simetan amaitzen dira.

Bi itsasoetan ikerketa zientifiko asko egin dira; dena den, bere eboluzio geologikoaren historiak hutsune ugari ditu. Karibear itsasoak -noizean behin- fenomeno sismikoak eta erupzio bolkanikoak dituen biartean, Mexikoko golkoak arroa geologikoki egonkorragoa da.

Itsas eskualde biak, pasalekuen eta itsasarten bidez, Atlantiar Ozeanorekin lotzen dira. Dena den, ur-trukea mugatua da, izan ere, komunikaziorako aldeak sakonera gutxiko urak izan ohi dira.

Yucatango kanalak Karibear itsasoarekin lotzen du

Yucatango kanalak Karibear itsasoa Mexikoko golkoarekin lotzen du. Karibeko urak gardenak dira, Atlantikoarenak baino gazitasun txikiagoarekin eta erlojuaren orra-



tzen kontrako norazkoan biratzen dira. Ura Kariberantz joaten da Antilla Txikietako itsasarten bidez, non berotzen den eta eskualdea uzten duen Yucatango kanaletik (Mexikoko golkorako helbidean). Ur hauek Golkoko Itsaslastarren iturria eragiten dute hemen. Karibear itsasoa iparraldeko alisioen aldean dago, eta horregatik etengabeko ekialdeko haizeen agerpena dago. Uda tropikal luzean zehar prezipitazio asko sortzen dira. Garai honetan ere Atlantikotik etortzen diren urakan gehienak sortzen dira, baina ez daude toki-zikloi tropikal asko.

Lurrako ekosistemarik liluragarrienetarikoa da eta dibertsitate biologikorik handienetarikoa dute Mexikoko golkoak eta Karibear itsasoak. Espezie bitxiak izan ezik (manatiak, isurde pikardatuak eta marrazo baleak) beste espezie batzuk ere badaude, esate baterako, itsas dortokak, aligatoreak, eta kurrilo espezie batzuk. Mexikoko golkoa, berez, arraitza-ondasunagatik nabarmendu ohi da; espezie garrantzitsuen artean dauzkagu: itsas amuarraina, berdela, salbelinoa, mihiarraina eta atuna.

Eskualdeak ingurumen-arazo larriak ditu. Turismoak, kirol-arrantzak eta arrantza



komerzialak jadanik koralezko irla txikiak hondatu dituzte. Herriko ganba-arrantza-leek dortoken zaintzaileekin arazoak dituzte eta ekologistek agortzeko sorian dauden espezieen harrapaketa kezkatzen dituzte. Dena den, azken urteotan pelikano- eta kurrilo-espezie batzuen hondamena geldiaraztea lortu dute, gainera talde ekologistek irla txiki askok zaintzen dihardute.







## ARGENTINAR ITSASOA

*Rio de la Platako estuarioa eta Banco Burdwooden artean dago Argentinari itsasoa. Argentinako kostaldea -mendebaldera- eta Argentinako Plataforma Epikontinentalaren ertzea -ekialdera-, plataforma berean ezarriz. Bere zabalera aldatzen da: Mar del Plata aurrean 210 km-ko zabalera du eta Falkland uharteetan, berriz, 850 km-ko zabalera du. Bere kostaldeko zerranda 4.725 km luzatzen da.*

Itsasertzeko itsasoa da, baita epikontinental ere, izan ere, Argentinako plataforma kontinental estaltzen du 200 m-ko sakonera arte. Buenos Airesko kostaldetik Malvinetara arte, eta planetako arrantza-banku aberastuenetarikoa da. Argentinari itsasoaren ekialdera sakonera gehitzen da, ia bertikalki ezponda batetik eroriz. Urpeko arroilek puntu batzuetan ezponda mozten dituzte eta hantxe egon badaude antzinako ibaien aztarnak -glaziazioetatik-, izan ere, aro horretan itsaso honen alde han-

dia ez zegoen urperatuta. Ezponda pasatu ondoren, lautada abisal handia agertzen da Hego Atlantikoaren alde handia hartuz, internazionalki "Argentinako arroa" esaten diote.

Argentinari itsasoak bi itsaslarter ditu, bata berao, Brasilgo itsaslasterra, eta bestea hotza, Malvinetako itsaslasterra, zein Antartikoko itsaslaster zirkunpolarraren luzaera baita.

Itsaso honek izugarritzko ondasunak ditu: bere uretan ez ezik (arrain-hazkuntzaren baliabideak, plaktona, krustazeo-

ak, mariskoa, zetazeoak, algak, itsas indar eragilea) bere lurpean ere (hidrokarburoak).


Itsaslabarretako kostaldeetan lapa eta muskuilu mota batzuk daude, baita olagarrak, mero zuria, txirlak, txangurroak, itsas izarrak, karramarroak, mihi-arrainak ere.



Valdes penintsula.

Itsas hegaztiak, pinguinoak eta ubarroiak batez ere, kostalde hauetan babes eta habia egiteko aldeak aurkitzen dituzte, esate baterako, Punta Tombo -Chabuteko probintzian-, lekua alde liluragarria da espezieen dibertsitatearentzat, non beren benetako izaera erakusten duten. Leku horri "Probitzia-faunaren erreserba" izendatu diote. Itsas lehoiei eta itsas elefanteei gehien gusutzen zaizkien lekuak beren kumeak erditzeko kostalde harritsuak dira. Azkenean esan behar da, ezin garela

Argentinari itsasoarekin okertzen, izan ere, bera elementu geografikoa, bere ezaugarriekin, besterik ez da, eta beste gauza bat da Argentinaren subiranotasunaren nahiak.







BARNEKO ITSASOAK

## ITSASO BELTZA

*Antzinean Itsaso Betzari Pontus Euxinus esaten zioten. Barneko itsasoa da. Europako hego-ekialdeak, Kaukasoak eta Anatoliako penintsulak (Turkia) mugatzen dute. Bosforo itsasarteak Marmara itsasoarekin lotzen du eta Dardaneloetako itsasarteak Mediterraneoko Egeo aldearekin lotzen du. Itsaso honek Ekialdeko Europa eta Mendebaldeko Asia banatzen ditu. Azov-eko itsasoarekin konektatuta dago Kertx-eko itsasartearen bidez.*

Itsaso Beltzak 436.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta sakonera handiena 2.212 metrokoa da. Pontoko mendikateak mugatzen du ekialderantz, eta ipar-mendebalderantz plataforma handia du. Ekialdetik mendebaldera luzera handiena 1.175 km ingurukoa da. Urtero

Bosforon zehar 200 km<sup>3</sup> ur gazi injektatu ohi dira. Hantxe urak isurtzen dituzten ibaiek 320 km<sup>3</sup> ur geza ematen diote, haien artean nagusia Danubio ibaia da.

Itsaso Beltza inguratzen duten herriek hauexek dira: Turkia, Bulgaria, Errumania, Ukraina, Errusia, Georgia. Krimea Ukrainiako errepublika autonomoa da. Erriberako hiririk nagusienak: Istanbul Konstantza, Burgas, Varna, Yalta, Odesa; Sebastopol, Kerch, Novorossiysk, Sochi, Sujumi, Batumi, Trabzon, Samsun Zonguldak.

### Bere izenaren jatorria

Normalean itsasoaren izen modernoak izen espainiarak dira -Itsaso Beltza-. Nahiz eta printzipioz



XIII. mendekoa izan behar den, lehenagoko izena izan ahal den seinalea dago.

Izen horren zergatia iparrorrazaren koloreagatik izan liteke -beltza-, iparraldera adierazteko, gorriak hegoaldea adierazten du eta ekialdea hori-kolorekoa da.

Behin Herodotok txandaka "Itsaso Gorria" eta "Hego Itsasoa" erabili zituen. "Kara" izenak (turkieraz) iritzi antzekoa ematen digu "Kara" (beltza) eta "Ak" (zuria) iparraldea eta hegoaldea esateko (Erdi Aroko turkieraz). Beste azalpen bat Itsaso Beltzaren ur sakonetan egon daiteke. Mediterraneo itsasoa baino iparralderagoa dagoenez eta bere urek gazitasun gutxiagoa dutenez, mikroalga ugari ditu, bere uretara kolore ilunagoa emanez. Egiatan, Itsaso Beltzan dagoen batez besteko ikuspena 5,5 metrokoa da, Mediterraneo itsasoa, ostera, 35 metrokoa da.

Antzinean, Itsaso Beltzari "Itsasoa" esaten zioten. Tradizio grekoerromatarrek "Itsaso



abegitsua" esaten zion.

Itsas zientziaren ustez, Itsaso Beltzaren izena beste leku batetik dator: hidrogeno-sulfuro geruzatik, zein azalaren azpitik 200 metroan hasten den eta populazio mikrobiarrak laguntzen duen sedimentu beltzak eginez, segurki metanoaren oxigenazio anaerobikoagatik.

### Ur sakonak ez dira goiko-aldean dauden urekin nahasten

Munduko arro meromiktikorik handiena da, non ur sakonak ez baitira goiko-aldean dauden urekin nahasten (azken hauek atmosferak oxigenoa ematen du). Topografiak gaur egungo konfigurazio







BARNEKO ITSASOAK

## >>ITSASO BELTZA

hidrokimikoa kontrolatzen du, eta ibaiko arroek estrukturan estratifikazio bertikal gogorra eta ur-balantze positiboa dituzte.

Itsaso Beltzaren goiko geruzak ur sakonekin konporatzekotan, normalean, hotzagoak, ez hain dentsoak, eta ez hain gaziak direla esan daiteke, izan ere, ibaiko sistema handiek elikatzen dute, baina hondoan dagoen ura Mediterraneo itsasoko ur bero eta gazia da eta oxigenorik ez du. Itsaso Beltzatik joaten den ur hotzaren irteerak Mediterraneo ur dentso-oldea orekatzen du, baita estratuen mantenua eta gazitasunaren kopuruak ere. Itsaso Beltzaren azaleko uren batez besteko gazitasunak mila aldetatik 18-18,5 alde ditu (lehen aipatutako ozeanoek 30-40 ppm

zituzten), eta oxigenoa eta beste elikagaiak beharrezkoak ditu ekintza biotikoa mantentzeko. Bere temperatura urtaroen arabera aldatzen da: 8°C-tik neguan 30°C-ra udan. Azalaren azpitik erdialdeko geruzaren ur hotzak daude, zein ez den dentso samarra ur sakonetan sartzeko.

Termoklinoa, haloklinoa eta piknoklinoa nagusiak ditu, eta dentsitate-desberdintasun hau mekanismo nagusia da ur sakonen isolamendurako.

Piknoklimaren azpitik, gazitasuna 22-22,5 ppm gehitu egiten da, temperaturak 8,5°C-an ibiltzen dira eta oxigenoa ia desagertzen da.

### Antzinaroan Itsaso Beltza

Itsaso Beltza ibaiko bidea izan zen, Balkanak mendebaldera, Euroasiako estepak iparraldera, Kaukaso eta eta Erdialdeko Asia ekialderantz, Asia Txikia hegoaldera, eta Grezia hegomendebaldera. Munduko erreprozesaturik zaharrena Vaman aurkitua izan zen, eta dirudenez argonautek Itsaso Beltzatik nabigatu zuten. Itsaso Beltzako ekialdeko muturrean, Colchisek (gaur egungo Georgia), mundu ezagunaren ertza mar-



Dardanelosko itsasertzea.

katu zuen. Dirudenez, Itsas Beltzako iparraldeko estepak Proto-hizkuntz indoeuroparraren hiztunen jatorria izan daitezke (PIE), hizkuntz indoeuroparren gurasoa. Aduitu askok pentsatzen dute, hizkuntz indoeuroparraren jatorria Kaukasoan edo Anatolian dagoela. Itsaso Beltzako kostaldeetako zerrenda zaharrea aurkitu diren portu batzuk Egiptoko piramideak baino zaharragoak dira. Eskualde honetako ibilbide komertzial batzuk ikasiak izaten ari dira. Jendearen iritzia da Itsaso Beltzan aurkikuntza arkeologikoz beteta dagoela. Eozeanoan zehar Mediterraneo itsasoa-ekin lotura Itsaso Beltza ur gezako lakua izan dela

esan den arren (gutxienez, goiko geruzetan), eta azken glaziazioan maila baxuagoa izan zela, bere hurrengo garapena itsas glaziar batean ikasteko gaia da.

Zorigaitzoko lekuak daude, eta trantsizio gradualagoa dago gatz-baldintzetarako ereduak eta Itsaso Beltzaren haustea. Teoria batzuen ustez, Mediterraneo itsasoa hain maila altua zuen, ezen Dardaneloen eta Bosforo-

aren isuriek lortu zuten Itsaso Beltza jadanik inoiz ez zela lakurik.

Beste aldetik, Egeoren hondoan egindako ikerlanaren arabera, K.a. VIII.mendean ur geza-isuri handia egon zen Itsaso Beltzan. Espedizio-sail batean, Robert Ballard arkeologo-taldearen nagusiak, antzinako kostalde antzeko bat aurkitu zuen. Turkia modernoaren Itsaso Beltzaren kostaldearen aurretik, ur gezako baraskiloaren maskorrak, egurrezko tresnak lana egiteko, eta gizonak egin zituen estrukturalak (91 m itsasoaren azpitik) aurkitu zituen. Ur gezako moluskuen datazioa (radiokarbonogatik) 7.000 urte ingurukoa da.







BARNEKO ITSASOAK

## ARAL ITSASOA

*Aral itsasoa laku endorreikoa edo barneko itsasoa da, Erdialdeko Asian dago kokatuta, Kazajistanen (iparraldera) eta Uzbekistanen (hegoaldera) artean. Nahiz eta itsasoa esaten dioten, Kazajistan eta Uzbekistan itsasertzetik gabeko estatuak direlakoan daude.*



1973. urtean.



2008. urtean.

Hantxe elkartzen diren ibaien ura eramateengatik bere azala oso murriztu da. Amu Daria eta Syr Darya ibaien urak desbideratzen hasi zirenetik -60ko hamarkadan-Uzbekistan eta Kazajistango laborantzak ureztatzeke, lehen aipatu dugun bezala itsas honen azala txikiagoa da. Gainera izugarriko kutsadura du, izan ere, joan den mendean armamentu-froga asko egin zituzten baita industria-proiektu asko, eta etengabeko ongarrizko izuriak ere.

Antzinako geografo arabiarrek eta persiarrek itsaso honi Khwarazm edo Kharezem esaten zioten (Corsamia-barrutitik) "Uharteen itsasoa" esan nahi du; izan ere, hektarea batean 1.500 irla txiki daude, baina gehienak desagerturik daude ingurune-arazoengatik.

### Aral itsasoaren jatorria

Tertziarioan zehar, Aral itsasoa Itsaso Beltzarekin konektatuta zegoen, eta banandu ondoren, Erdialdeko Asiako



basamortuaren erdian sakonune bihurtu zen, gero Pleistozenoan zehar -duela 10.000 eta 20.000 urte inguru-, Amu Daria eta Syr Darya ibaiek bete zuten, oasi-alde bihurtuz, geroago lakua izango zen. Dena den, azken 40 urteetan, ibai hauetako ura eramatea -laborantza

ureztatuak lortzeko-, Aralgo azala oso murriztu du. Honek hondamen ekologikoa sortu du, aldeko basamortua gehituz.

### Aralgo giza-alternantzia

1960.urtean, SESBk (Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna) Asiako bi ibai handien ura desbideratzea erabaki zen eta horrela Erdialdeko Asiako laborantza-urreztatuak gehitzea. Honela, Erdialdeko Asia arroz, meloiak, zerealak, eta kotoia batez ere, ekoizten hasi zen. SESBk munduko kotoi-ekoizle handienetakoa izan nahi zuen eta lortu zuen oreka ekologikoa aldatuz. Gaur egun, munduko ekoizle-esportatzaile







>>ARAL ITSASOA



handienetarikoa Uzbekistan da. 1930.urtean urreztatzeko kanalak -eskala handietan- eraikitzen hasi ziren. Kanalen eraikitzearen kalitatea oso txarra zen eta ur-kopuru handia filtratzen edo baporatzen zen.

Kara Kum kanalaren kasuan -Erdialdeko Asiako handiena-, uraren %70 probetxurik ez zen atera. Egun, Uzbekistango urreztatzeko kanalaren %12 bakarrik iragazgaizturik daude. 1960.urteetik baino lehen, jadanik 20-50 km<sup>3</sup>-ko ur lurrera desbideratzen zen. Horrela, Aralgo ur-horniketa gehiena desbideratuta zegoen eta 60ko hamarkadan itsasoa murrizten hasi zen. 1961 eta 1970 bitartean, Aral itsasoa urtean zehar 20 cm galtzen zituen. 70eko hamarkadan, kopurua hiru-koiztu egin zen, 50-60 cm hartu arte. 80ko hamarkadan, itsasoaren bolumena murriztu egin zen berriro: 80-90 cm. Baina urreztatzeko mailak aurrera jarraitu zuen. Ibaietatik kopuru aterata birkoiztu egin zen 1960-1980 urtee artean. Bitartean, denboraldi berean, kotoi-ekoizpena ere birkoiztu

ere egin zen.

**Bere azala %80tan murriztu egin da**

Sobietarrek ez zuten lakua-  
ren desagerpenagatik harritzen. Dirudienez SESBen ustez Aral itsasoa “*naturaren hutsa*” besterik ez zen, eta 1968.urtean, ingeniari sobietar batek esan zuen: “*Bistan dago Aral itsasoaren desagerpena ezinbestekoa dela*”. Aral itsasoaren azala %60tan murriztu da eta bere bolumena ia %80 tan.

1960.urtean, munduko lakurik handiena zen, 68.000 km<sup>2</sup> inguruko azalera zuen eta 1.100 km<sup>3</sup>-ko bolumena. 1998.urtean jadanik 28.687 km<sup>2</sup>-ra jaitsi zen, munduko zortzigarren lakua. Denbora berean, itsasoaren gazitasuna 10 g/l-tik 45 g/l-ra gehitu da.

1987.urtean, ur mailen etengabeko gutxitzeak lakua bi aldeetan banatu zituen -Ipar Aral itsasoa eta Hego Aral itsasoa-. Nahiz eta hegoaldea eta iparraldea konektatzeko kanal artifiziala egin zen, 1999.urtean lotura bertan behera utzi zen, ur-gutxitzegatik.

Dena den, lanak egin ziren Ipar Aral itsasoa babesteko, eta presak egin zituzten etengabeko ur-isuri geza mantentzeko. 2003ko urrian, Kazajistango gobernuak zementuzko presa eragiteko egitasmoak jakinarazi zituen -Kokaral dike izenekoa-, Aral itsasoaren bi aldeak banatzeko. Horrela, itsaso honetako aldean ur maila igo daiteke eta bere gazitasuna jaits daiteke, 2007.urtean helburua lortu zen.



Arrazoi ekonomikoengatik, Hego Aral itsasoa bere kabuz utzita izan zen. Bere agonian, gatz-lautada handiak uzten ari da, eta hauek harea-ekaitzak eragiten dituzte, Pakistanera edo Artikoraino ailegatuz. Haien neguak luzeagoak eta udak beroagoak egiten dituzten. Efektu hauek eztitzeko, itsasoaren hondo zaharrenean landaredia landatu dute, izan ere, orain lehorra da.

2003ko udan, Hego Aral itsasoa desagertzen ari zen, oso azkar gainera. Egun, azala itsas mailatik 30,5 m-ra dago (90eko hamarkadan pentsatu zena baino 3,5 m baxuago) eta hemengo urak ozeanokoak baino 2,4 gazitasun gehiago du. Itsasoaren beheko aldeetan azalekoetan baino gazitasun gehiago dago, bi ur-mota eraginez, ez direla haien artean nahasten. Horregatik, itsasoaren azala bakarrik udan berotzen da, eta bera oso azkar baporizatzen da. Zientifikoek ustez, Hego Aral itsasoaren mendebaldea desagertuko da 2020.urtean, ekialdea, ostera, behin betirako egon daiteke baina prekarioran.







BARNEKO ITSASOAK

## KASPIAR ITSASOA

*Kaspiar itsasoa, itsaso edo laku endorreikoa da. Europaren eta Asiaren artean hedatzen da. 371.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta honek munduko lakurik handiena bilakatzen du. Batez besteko sakonera 170 m-koa da, baina maximoak 995 m hartzen ditu. Iparrealdetik hegoaldera 1.210 km ditu eta ekialdetik mendebaldera 210 km-tik 436 km-ra ditu*

U ralkaspiar sakonunearen mendebaldea betetzen du, Lurrako arro endorreikorik handiena eratuz. Bere azal osoa itsas mailatik 28 m-ra dago.

Kaspiar itsasoa (antzinean *Caspium Mare* edo *Hycanium Mare*) Errusiako muga naturala da (Dagestan, Kalmykia, Oblast de Astrakhan), Azerbaiyan, Iran, (Guilan, Mazandaran eta Golestango probintziak), Turkemenistan (Balkango probintziak) eta Kazajstan, Erdialdeko Asiako estepekin iparraldera eta ekialdera. Ekialdeko kostaldean, Turkmenako kostaldean, Kara Bogaz Golgo golkoa dago. Kaspiar itsasoren kostaldea irregularra da. Ekialdera golko



handiak ditu, haien artean aipa daiteke, Krasnovodsk eta Kara-Bogaz-Gol (Gara-bogazköl Aylagy), sakonera gutxikoa, baporizazio-arro bezala balio du eta fabrika kimikoa dago gatzak ateratzeko.

Kaspiar itsasoa, Manytcheko kanalaren bidez Azoveko itsasoarekin lotuta dago.

Lakuen eta itsasoen ezaugarri komunak

Kaspiar itsasoa, itsasoen eta lakuen ezaugarri komunak ditu. Sarritan, munduko lakurik handientzat hartuta da, baina ez da ur gezako lakurik.

Volga ibaiak laku endorreiko honi ibaiko uraren %80 ematen dio. Hau dela kausa, Kaspiar itsasoaren ekosistema ut-tankearen antzekoa da, bere historia hidrikoarekin, planetako beste ozeano batzuen maila eustatikotik at.

Beste ibai batzuk -ez hain emaritsuak- Ural, Emba eta Kura ibaiak dira.

Itsas honek 30 milioi urteko antzinatasuna duela kalkulazten da eta duela 5,5 milioi urte inguru, masa kontinentalaren barruan geratu zela. Orduetik ez du irtenbiderik.

Huto koban agertu ziren aztarna batzuek (Behshahr hiri -Iran-) esaten digute duela 75.000 urte, tokian jendea bizi izan dela.

Denbora gutxitan bere mailak aldaketak jasan ditu, gainera bere sorreratik behin baino gehiagotan. Historialari errusiar batzuen arabera, Erdi Aroan zehar, itsaso honek ur-goraldi handia jasan zuen Atileko erriberako hirietan. 2004. urtean, ur maila 28 m-koa zen edo 28 m-koa itsasoaren azpitik. Duela hiru hamarkada inguru, ur maila igo da eta itsasertzeko alde handiak urperatu ditu, baina adituek ez dute kausekin ados jarri.

Garai klasikoan, Ozeano Hircanio izena



ematen zioten. Baita Khazarreko itsasoa ere. Antzinako Persian eta gaur egungo Iranen ere Mazandarango itsasoa esaten diote. Iturburu errusiar zahar batzuek Khvalia-ko itsasoa esaten diote, izan ere, Khvali herria, Khwarezmiako biztanleak izan ziren.

Kaspiar itsasoaren iparraldea izozten da neguan, eta neguak oso hotzak izateko-







BARNEKO ITSASOAK

>> KASPIAR ITSASOA

tan, bere iparralde osoa izotzez beteta geratzen da.. Hegoaldean -abendu- eta urtarrilean- izotza ere ager

daiteke. Negu leunetan, kostaldetik gertuko zingiretan, izotzak bankuak egiten ditu.



Era askotako fauna

Kaspiar itsasoan gaizkata asko daude, beren arrainekin kabiarrak egiten dute. Azken urteotan, gehiegizko arrantzak gaizkata mehatxatu zuen, eta hain handia da keinada ezen ekologisten ustez, hobe da harrapaketak uztea populazioa berreskuratu arte. Dena den, hain altuak dira kabiarren prezioak ezen arrantzaleek autoritateak erosten dituzten legiazioa sahiesteko, ez eraginkorra eginez. Kabiarrak industriak arrainen zenbakia arriskuan jartzen du, eme emankorrak hartzen dituelako. Kaspio itsasoko foka (*Phoca caspica*) endemikoa da eta barneko uretan bizi den ia foka bakarra da.

Energia-baliabideetan aberatsa da Kaspiar itsasoa. Gaur egungo aurkitutako petrolio-meatokiak ezezik, gas natural-poltsa handiak ere ditu, baina aldea arakatzen jarraitzen dute bere potentzial osoa ezagutzeko.



Kara Bogaz Golkoa.



Bakuko hiria eta portua.

Kaspiar itsasora irteten diren herrialdeak beren joku geopolitikoak garatzen ari dira, Ekialde Ertainaren aldakortasunari esker, honi gaineratu behar da, mendebaldeko herrialde batzuk beren politika energetikoak modifikatzen ari direla eta AEBek hedatze militarra egin duela Erdialdeko Asiako eskualdean.

Beste arazo nagusi bat Kaspiar itsasoren estatusa da eta herrialdek parteka-

tzen duten lurraldeko uren mugen ezarpena (Tartekatzen duten herriak hauek dira: Errusia, Azerbaijan eta Kazajstan). 2003.urtean, ituna sinatu zuten: haien artean itsasoaren %64 banatu zen, baina erriberako beste herrialde biak ez zeuden ados: Iran eta Turkmenistan.

Agian, ituna sinatu zuten hiru herrialdeek aurrera jarraituko dute baina beste biak geldituko dira.







BARNEKO ITSASOAK

## AZOVEKO ITSASOA

*Azoveko itsasoa Europako barneko itsasoa da. Krimeako penintsualeran ipar-ekialdera dago -Errusia eta Ukrainiaren artean-. Kerch-eko itsasartearen bidez Itsaso Beltzarekin komunikatzen da eta han Don eta Kuban ibaiek beren urak isurtzen dituzte. Azoveko itsasoak 340 km-ko luzera eta 150 km-zabalera ditu. 37.555 km<sup>2</sup>-ko azalera du.*

Munduko itsasorik launena da, bere batez besteko sakonera 13 m-koa da eta bere sakonera handiena 15,3 m-koa da; egiatan, non sedimentuak metatzen diren, adibidez, Taganrog-eko golkoan ez da metro bateko sakonerara

ailegatzen.

Itsaslaster nagusia zurrunbiloaren antzekoa da eta erlojuaren orratzen kontrako norazkoan biratzen da; mareak aldakorak dira, baina marea goran bost metro-ra arte igo daiteke.



### Neguan itsasoaren alde handi bat izotz daiteke

Azoveko itsasoaren ur-maila oso alda daiteke, haizearen arabera eta berean beren urak isurtzen dituzten ibaien arabera. Batzuetan, haize gogorrek ertzeko urak eramaten dituzte maila jaitsiz.

Badiarik garrantzitsuenen artean Tahanrih-ko badia daukagu, zeinek Don ibaiaren estuarioa eragiten duen. Beste baidia batzuk hauexek dira: Arabatekoa, Obytochnako badia, Berdiansk-eko badia eta Temriuk-eko badia.

Azveko itsasoan uharte batzuk daude, eta guztiak



Berdianskeko portua.

kostaldetik gertu daude, oso altuak ez dira eta jeneralean txikiak dira.

### Klima kontinental

Bere klima kontinental da. Urteko batez besteko tenperatura 9°C-tik 11°C-ra ibiltzen da. Uztaroan tenperaturak 24°C-ra ailegatzen dira, urtarrilean, berriz, 16°C-ra jaisten dira. Urtean zehar prezipitazioak 250-500 mm artean ibiltzen dira. Sakonera gutxiko lakua denez, urak oso azkar mugitzen dira, baita hondoetara joateko ere. Hau dela kausa, azala eta hondoaren arteko tenperaturaren eta gazitasunaren desberdintasuna ez da handia. Urteko batez besteko azaleko uraren tenperatura 11°C-12°C artean dago. Hilabete beroenetan 25°C-30°C-ra arte igo daiteke, eta neguan 0°C-tik azpitik jaits daiteke. Horregatik, Kerch-eko itsasartetik gertuko aldea bi hilabetetan izoztua dago neguan



eta Tahanrih-tik gertu, lau hilabetera arte izoztua egon daiteke. Gazitasuna %11-%13 artean dago. Ipar-mendebaldean, non Don ibaiak bere urak isurtzen dituen, gazitasuna ez da %3-ra ailegatzen, baina hegoaldean eta mendebaldean, non Itsaso Beltzaren eta Sivaix lakuaren urak joaten diren, %17,5 ailega daiteke. Herriko tradizioaren arabera, gaurko izena Kumako printzaren izen batetik dator -Azum edo Asuf printzetik-; berak hiri bat zaindu zuen bitartean hil zen 1067. urtean.







BARNEKO ITSASOAK

## >> AZOVEKO ITSASOA


Ikastun gehienek Azoveko hiritik datorrela esaten dute, izen errusiatar hau Azaq izen tatariarretik dator bere egoera geografikogatik, ("baxua" esan nahi du).

Ukraniako kostaldeak iparraldera bainatzen ditu, Errusia (ekialdera), eta Krimeako penintsula (mendebaldera).

Hantxe urak isurtzen dituzten ibai nagusiak Don eta Kuban ibaiak dira, baita beste ibai txiki batzuk ere, esate baterako, Obytochna, Berda, Kalmius, Miius, eta Yeia ibaiak. Ibai hauetako batzuek estuarioak eragiten dituzte, eta haietariko batzuk itsasotik banaturik izan dira -gatz- eta harea-mulzoengatik- laku biburtuz, hots, Molochne lakua, eta Khansk lakua. Ibaiei esker itsas honetako gazitasuna baxu samarra da eta leku batzuetan ia ur geza da. Gainera, sedimentu asko uzten dituzte. Mendebaldean Arabat-eko itsasertzeko kordio bat dago eta beste alboan, Sivaix-ko urmael gaziak daude.

### Aberastasun plaktoniko handia

Bizitza organiko asko dago Azovko itsasoan, izan ere, udan oso bero da eta urte



Plaktona.

osoan zehar ibaiek elikagai organikoak eramaten dituzte. Hau dela kausa platonan aberatsa da (100-200 gr/m<sup>3</sup>).

Historikoki itsas bizitza ugari izan du, 80 arrain-espezie ezagunekin, eta 300 ornogabe motak. Bai dibertsitatea bai aleen kopurua murriztua izan da, errudunak: gehiegizko arrantza eta etengabeko kutsadura handia.

Bigarren Mundu Gerra gertatu ondoren, itsas honetako arrainek murrizten jarriatu zuten, gehiegizko eta kontrol gabeko arrantzagatik, esturion- eta perka-bankuetan batez ere.

Itsaso Beltzaren uholdearen teoriak, K.o. 5600 urtera arte Azoveko itsasoaren jatorria eramango luke eta gaur egun, berriz, Neolitoko aztarnak aurkitu dituzte itsasadar honen azpitik. Antzinaroan, Meotidako itsaso edo lakua esaten zioten.

## MARMARA ITSASOA

*Marmara itsasoa "Marmara denizi" turkieraz, Marmara itsasoa ere esaten diote. Barneko itsasoa da, zeinek Itsaso Beltza Egeotik banatzen baitu (eta horregatik Turkiako alde asiarra alde europarretik banatzen du) Bosforotik eta Dardaneloetatik.*

Bosforoko eta Dardaneloetako itsasartearen artean kokatuta dago. 11.350 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Alde batetik, Marmara itsasoa 200 km-ko luzera eta 75 km-ko zabalera ditu, bestetik bere batez besteko sakonera 494 m-koa da eta erdialdean 1.355 m-ra ailega daiteke. Ez du itsaslaster gogorrik eta gazitasunaren kopuruak mila alde bakoitzatik 22 alde ditu. Duela 2.500.000 urte eragin zen, Pliozenoaren azken aroan eta gaur egun seismo



asko gertzen dira.

Bi irla-talde nagusi daude: Printze uharteak eta Marmara uharteak. Marmara uharteak marmolean aberatsak dira, eta handik itsasoaren izena dator ("marmaros" hitzak "marmola" esan nahi du grezieraz). Anatoliako iparraldeko failak Turkiako lurrikadarek hondatzaileen eragin ditu, adibidez, Izmiten epizentroa zuen lurrikada (Marmara itsasoaren azpitik) 1999. urtean.

Antzinean grekoek itsaso honi "Propontide" esaten zioten, izan ere, handik Ponto Euxinora (Itsaso Beltza) joan zitezkeen.

Propontideko hiririk garrantzitsuenak Bizantzio eta Kaltzedonia izan ziren (Bosforoko, itsasartearen). Itsaso honek eskualde batzuk bainatzen zituen: Asiako kostaldean, Misia hegoaldean, eta Bitnia iparraldean, eta Europako kostaldean, Tracia.







BARNEKO ITSASOAK

## ITSASO HILA

*Itsaso Hila laku endorreikoa da, zein itsas mailatik 461,5 metroz azpitik dagoen. Israel, Zisjordania eta Jordaniaren artean kokaturik dago. Egiatan, Lurreko alderik baxuena da. Jordan ibaiak zeharkatzen duen sakonune tektonikoaren alderik sakonenean dago eta Tiberiades lakua ere sartuta dago. 76 km-ko luzera du, 16 km-ko zabalera handiena eta 625 km<sup>2</sup>-ko azalera ditu. Bere sakonera handiena 396 m-koa da.*

Itsaso honi "Asfaltites lakua" ere esaten zaio, izan ere, bere ertzetan asfalto-metaketak daude -Antzinarotik ezagunak eta ustiatuak-. Jordan ibaiak bere urak isurtzen ditu, honi gaineratu behar da, ur txikiagoak, eta bere gainean sortzen diren ur eskasiak. Horregatik bere ur mailak ekarpen hauen eta baporizazioaren arteko balantzea dira.



Itsaso Hila edozein ozeano baino hamar aldiz gaziagoa da. Itsaso gehienek 35gr/l dituzte Itsaso Hilak, berriz, 350-370gr/l ditu. Hau dela kausa izaki bizidunak ez dagoela -mikrobio batzuk izan ezik-. Hain handia da gazitasuna ezen edozein pertsona ur gainean egon daitekeen, gainera, ahaleginik egin gabe; ezaugarri honi esker, mundu osoan ezaguna da. Halaber esaten da, ezaugarri bera du AEBko Gran Lago Saladok (Laku Gazi Handia). Potasa, bromuro, igeltsu, gatz eta



beste produktu kimikoetan aberatsa da. Itsaso Hilako hegoaldean dauden Israelgo eta Jordaniako konpainiek mineral hauek aprobetxatzen dituzte ekintza ekonomika handia garatzeko. Mineralak ateratzeko Itsaso Hilaren urak artifizialki baporatu behar da, prozesu honengatik bere ur maila jaisten da eta bistakoa da hara joango den edozein pertsonarentzat. Herralde biek (Jordania eta Israel) Jordan ibaiaren urak erabiltzen dituzte nekazaritza-lur handiak ureztatzeko.

### Itsasoa jaistea

Itsaso Hilaren azalera 1.025 km<sup>2</sup>-koa izan zen 1945. urtean. Gaur 625 km<sup>2</sup>-ra ez da ailegatzen eta, zientifikoen arabera, ehun urte barru gaur egungo hedapenaren erdia edukiko du. Alde batzuetan, gaurko kostaldea 600 m-ra dago nondik zeuden duela 20 urte.

Hain urrun dago kostaldea ezen turistei



asko kostatzen zaien itsasora ailegatzea. Alde batetik, uren atzera-egite honek alde idorak eragiten ditu eta batuzetan oso zaila da haiek gurutzatea lohiz beteta daudelako. Bestetik mendietatik jaisten den urak itsasorantz sakonagoa zulatzen du -itsasoaren jaitsieragatik- eta infraestruturara arriskuan jartzen du, lur-jauziekin. Sarritan, 8-10 m-ko sakonerako eta diametroko zuloak agertzen dira, beti urpetutako lekuetan, lur-jauzeiak eraginez, hau dela kausa neurriak hartu behar ditu gobernuak, esate baterako 90 errepidea -Jerusalenera eramaten duena-.







INDIAR OZEANOKO ITSASOAK

## ITSASO GORRIA

*Itsaso Gorria Indiar ozeanoaren golkoa edo arroa da. Afrikakaren eta Asiaren artean dago kokatuta. 2.200 km-ko luzera du eta 335 km-ko zabalera. Bere sakonera handiena 2.130 m-ra ailegatzen da, 500 m-ko batezbestekoa izanez. Sakonera gutxiko plataformak ere ditu, hantxe itsas bizitza handia eta koralak ikus daitezke. 450.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du.*

**B**ab-el-Mandebeko itsasartearen et Adengo golkoaren bidez Indiar ozeanoarekin konektatzen da. Iparralderantz, Sinaiko penintsula, Aqabako golkoa eta Suezko golkoa daude. Itsaso hau Gran Rift-eko haranaren

zatia da eta Europaren eta Ekialde Urrunaren komunikazio-bide nagusia da.

XX.mendera arte, europear gehienek Itsaso Gorria “*Golko arabiarra*” esaten zioten.



Egile grekoetatik dator izen hori, Herodoto, Estrabon, eta Ptolomeo. Hauek “*Arabicus Sinus*” esaten zioten eta “*Mare Erythrias*” (Itsaso Gorria) uzten zuten Arabiako hegoaldeko uretarako, gaur egun eskualde hori Indiar Ozeanoa esaten diogu.

Itsasoaren izena *Triodesium erythraeum cyanobakteriari* dagokio, bera ur-azaletik gertu dago. Beste teoria batek dio Himarita herritik datorrigula izena, izan ere, bere izenak “*gorria*” esan nahi



du. Dago beste teoria bat, berak ondoko mendiei buruz hitz egiten du, izan ere, mineral gorritan aberatsak dira -Errubi mendiak hebreeraz-. Azkenik, kolorea eta norabide geografikoa elkartua joango ziren, kasu honetan “*gorria*” hegoaldea da baina Itsaso Beltza “*iparraldea*” izango zen. Dirudienez, Asiako hizkuntza batzuk koloreetan dautzate iparorratzaren orientazioei buruz hitz egiteko.







INDIAR OZEANOKO ITSASOAK

## ARABIAKO ITSASOA edo OMANGO ITSASOA

*Arabiako itsasoari Omango itsasoa ere esaten diote. Indiar Ozeanoaren aldea da eta Arabiar penintsularen eta Indiaren artean kokatuta dago.*

**B**ere zabalera handiena 2.400 m ingurukoa da eta bere sakonera handiena 4.652 m-koa, Arabiar Penintsulatik gertu. Indo ibaia tamaina handikoa da eta itsasorantz ibiltzen da, ipar-mendebaldean estutzen da



Indo ibaia.



Omango golkoa eratzeko eta Persiako Golkorekin lotzen da -Ormuzko itsasartean-. Bere kosta Arabiako kostaldearen gainean dago, baita Indian, Omanen, Pakistanen, Yemenen, UAEn (Emirrerria Arabiar Batuak), Somalian eta Maldive-tako uharteetan ere.



## ANDAMANGO ITSASOA

*Andamango itsasoa Indiar Ozeanokoa da, Bengalako badiaren hego-ekialdera dago, Myanmarreko hegoaldera, Thailandiako mendebaldera eta Andamango uharteetako ekialdera, handik bere izena dator. Iparraldetik hegoaldera 1.200 km-ko luzera du eta ekialdetik mendebaldera 650 km. 797.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Bere batez besteko sakonera 870 m-koa da eta maximoa 3.777 m-ra ailegatzen da. Irawady bere ibai nagusia da.*

**A**ndamango itsasoaren hego-ekialdeko muturrean Malakako itsasartearen eratzeko Sumatra Malaysiako penintsulatik banatzen duen. Andamango itsasoaren hondo ozeanikoa, iparraldetik hegoaldera bi plaka tektonikoen muga dago: Birmaniako plaka eta Sundako plaka, dirudienez, antzinean mikropilaka hauek Euroasiako Plaka handian zeuden, baina Indiako plakark etengabeko talkak eragin zituen.



Ondorioz, itsasoaren hondoa hedatzen da bere erdialdean, bazterreko arroa eratuz (duela 3-4 milioi urte egin zuen). Artxipelagoko irla nagusiaren ekialdera, Gran Andaman, Barren irla dago, non sumendi aktiboa dagoen (Indiako sumendi aktibo bakarra da) Indiako Plakaren subduzioak ekintza bolkanikoa eragiten du, eta ondorioz, Birmaniako Plakatik magma ateratzen da. Narcondam irla bolkanikoa prozesu honetan ere eginda izan zen, baina ez du erupzio-ekintzarik.







INDIAR OZEANOKO ITSASOAK

## SAVUKO ITSASOA

*Savuko itsasoa Indonesiako itsaso txikia da. Modu horretaz deitzen da bere hegoaldean izen bereko irla dagoelako. Mendebaldetik ekialdera 600 km hedatzen da eta iparraldetik hegoaldera 200 km. Bere sakonera handiena 3.500 m-koa da.*

Hegoaldera, Savu eta Rai Jua uharteek inguratzen dute eta ekialdera Roti eta Timor uharteak, ipar/ipar-ekialdera Flores



eta Alorreko artxipelagoa, eta ekialde/ipar-ekialdera Sumba irla. Irla hauen artean, Savuko itsasoa Indiar Ozeanorantz joaten da, zein iparraldera dagoen, Flores itsasorantz -iparraldera-, eta Banda itsasorantz -hegoaldera-. Bere itsasertzean dagoen hiririk handiena Kupang da, Ekialdeko Nusa Tenggara probintziaren hiriburua (Timor irlan), 450.000 biztanle ditu.



Sumba irla.



## TIMORKO ITSASOA

*Timorko itsasoa Indiar Ozeanoaren itsasadarra da. Timorko irlaren (gaur egun Indonesiako estatuaren eta Erdialdeko Timorren artean zatituta) eta Australiako iparraldeko lurraldearen artean dago. Ekialdera dauden urek Arafurako itsasoa eratzen dute (Ozeano Pazifikoaren itsasadarra da).*

Itsaso honek 480 m-ko zabalera du eta 610.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Bere alde sakonena Timorko fosa da, itsasoko iparraldean dagoela. Fosak 3.300 m-ko zabalera du. Itsasotik geratzen dena ez da hain sakona, adibidez, bere batez besteko sakonerak 200 m baino gutxiago ditu (Sahul plataformatik hedatzean -Australiako plataforma kontinentalaren zatia-).

Timorko itsasoak Australiako ipar kostaldean bi sarrera nagusi ditu, Jose Bonaparte golkoa, Napoleonen anaraiaren ohoretan- eta Van Diemen golkoa. Australiako Darwin hiria, itsaso honetako hiri nagusia bakarra da.

Itsaso honetan ekaitz tropikal asko eta tifoia egon ohi dira. Irla asko ditu, haien artean hauexek aipa daitezke: Melville uhartea -Australiako eskumeneko-uretatik at dagoela-, eta Ashmore eta Cartier uharteak -Australiako gobernuaren menpe daudela-. Pentsatzen da hona etorri ziren lehenengo biztanleak Timorko itsasoren bidez, irlaz irla



bidaiatu zutela.

Timorren azpitik petrolio- eta gas-erreserba garrantzitsuak aurki ditzakegu. Timorko itsasoko Greater Sunrise gas-eremurik handiena da.

Timor Gap-en Australiaren eta Ekialdeko

Timorren arteko liskarra luzea izan da, nork edukiko zituzkeen petrolio- eta gas-ustiatzerako eskubiak. Australiaren eskualdeko apeua ardatz barimetrikorantz hedatzen da -Timorko fosan-. Apeu honek alde batzuetan

Ekialdeko Timorren eskualdeko apeuarekin gainjartzen du, zeinek Portugalen apetua jarraitzen duen, izan ere, Timor Portugalgo kolonia izan zen, eta esaten du banatzeko marra, bi herrialdeen arteko marra ekidistantea izan behar dela.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## SULUKO ITSASOA

*Suluko itsasoa, Filipina uharteen eta Malaysiaren arteko itsaso handia da. Ozeano Pazifikoa da. Palawango uharteak (ipar-mendebaldera) Hego Txinako itsasotik bantzen dute, eta Suluko artxipelagoak (hego-ekialdera) Celebesko itsasotik banatzen du. Hego-mendebaldera Borneoko irla dago eta ipar-ekialdera Bisaya uharteak. Mindoroko eta Balabac-eko itsasarteen bidez Hego Txinako itsasoarekin lotzen da.*

Suluko itsasoak irla asko ditu. Cuyo eta Cagayan Palawango probintziako uharteak dira eta Tawi-Tawiko Cayagan eta Turtle Islands (Dortoka Irlak) Tawi-Tawiko probintziako uharteak dira. Suluko itsasoan ere Tubbataha Reef Itsas Parke Nazionala dago, zein Gizateriaren Ondarea baita. Itsaso honetako hegoaldea arro sakona da;



sakonune honen eta Palawango hesiaren artean aldapa handia dago. Suluko itsasoaren azpitik mendikate ozeanikoa dago, Palawana eta Suluko artxipelagoa paraleloan hedatzen dena. Kate honetatik atoloi ozeanikoak eta arrezifezko plataformak sortzen dira. Arrezifeek duten urpeko lur-eremua pixkanaka-pixkanaka makurtzen doa eta 1.000 m-ko altuerako hormak agertzen dira. Politikoki, Suluko probin-



tziak 400 irla banatu baino gehiago ditu eta ia jenderik gabekoak. Zamboangatik Borneoraino hedatzen da. Irla hauek Suluko artxipelagoa eratzen dute itsaso honetan, eta Suluko eta Celebesko itsasoak banatzen dituzte.

Itsasotik gertuko eskualdeek egur-baliabide asko dituzte, baina industria nagusia arrantzagintza da, holoturiatan batez ere, baina era askotako arrainak ere ditu, agortzeko zorian dauden itsas dortokak, eta perlak.

Montzoiek Suluko itsasoaren kliman eragina handia sortzen dute. Hauek Hego-mendebaldeko montzoia -ekaina eta iraila bitartean-, eta ipar-ekialdeko montzoia -abendu eta ekaina bitartean- dira. Urteko batez besteko temperatura 26°C-tik 27°C-ra ibiltzen da. Otsaila hilabeterik hotzena izan ohi da, maiatzatik abuztura arte tenperaturarik altuenak dauden arren. Hezetasun errelatiboa %86-koa da. Urtarrila eta apirila bitartean, lehorte-garaia da, non batez besteko prezipitazioak 7-9 mm artean dauden.

## BANDA ITSASOA

Indonesiak eta Erdialdeko timorrek tartekatzen dute Banda itsasoa. Celebesko artxipelagoaren, Moluken eta Sondako Uharte Txikien artean kokatuta dago. Ekialde-



tik mendebaldera 1.000 km inguru ditu eta iparraldetik hegoaldera 500 km. Han Bandako arroa dago, zeinek 7.440 m-ko sakonera duen.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## JAVAKO ITSASOA

*Javako itsasoa Ozeano Pazifikoko itsasoa da. Azken Izotz Aroaren amaieran sortu zen. 310.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Iparraldera Borneo uharteak ditu, Sumatra mendebaldera, eta Celebesko uharteak ekialdera. Ipar-mendebaldera, Karimatako itsasaertzeak Hego Txinako itsasoarekin konektatzen du.*



3.000 itsas espezie baino gehiago ditu eta arrantza ekintza ekonomiko garrantzitsuen da.

Javako itsasoaren kostaldeak turismo-

guneak dira. Urpean igeri egiteari esker, urpeko kobak esplora eta argazkiak egin daitezke: koralak, belakiak, arrainak...

Eskualdeko parke nazionalen artean aipa daiteke Ujong Kulon-ekoa, Yakarta-tik gertu, Karimun Jawa-koa (22 irla dituela) eta Menjangan irla, Bali-tik gertu.

Javako itsasoan Bigarren Mundu Gerrako ontzi-batailarik odoltsuenetarikoa gertatu zen -1942ko otsailean eta martxoan-. Herbehereetako ontzi-indariak, Britainia Handia, Australia eta AEB ia hondatuak izan ziren Java Japoniako erasotik defendatzen ahalegindu zirenean.



## CELEBESKO ITSASOA

*Celebesko itsasoa edo Sulawesi itsasoa Ozeano Pazifikoko mendebaldean dago. Iparraldean, Suluko artxipelagoak mugatzen du, Suluko itsasoarekin eta Mindanao uharte filipinarra. Ekialdera Sangi uharteak daude, hegoaldera Celebesko irla eta mendebaldera Borneo irla. 280.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta bere sakonera handiena 6.200 m-ra ailegatzen da.*

Itsaso honetan menperatzen duen klima tropikala da. Celebesko arroaren eta Filipineta-ko fosaren artean Ozeano Pazifikokoaren ur-trukea gertatzen da. Udan, montzoiari esker, Makassarreko itsasartearen bidez Javako itsasoarekin ur-truke gertatzen da.

Celebesko itsasoak flora eta fauna asko ditu, hemen aipa daiteke zetazeoen populazioak, hemen bizi diren 78 balea-espeziatik 26 ur hauetan bizi direla. Faunaren artean beste espezie batzuk ere oso garrantzitsuak dira: koralak, itsas dortokak, barrakudak eta tunidoak. Baina Celebesko itsasoa ere ospetsua da beste gauza batengatik, hemen arraintza-ontziei eta kargaontziei eraso ohi dieten piratengatik. Autoritateek piraten kontra jokatzeko, teknologia berriak erabiltzen



dituzte; erradarak, ontzi askarrak eta GPSak.

Turismoa babesteko, Malaysiak bere armada hedatu du itsas honetatik.

Woods Hole Institutu Ozeanografokoko eta National Geographic Erakundeek Fili-

pinetako gobernuarekin, 100 fauna-espezie berri baino gehiago aurkitu dituzte Filipinetako uharteen eta Indonesiaren artean, planetako biodibertsitatearen erreserbarik handienetarikoa.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## ARAFURA ITSASOA

*Arafura itsasoa Ozeano Pazifikoarean itsasadarra da. Australiaren eta Ginea Berriaren arteko plataforma kontinentala estaltzen du. Torresko itsasarteak, Korral itsasoak, ekialdera; Carpentaria golkoak, hegoaldera, Timorko itsasoak, mendebaldera, eta Banda itsasoak eta Ceram itsasoak, ipar-mendebaldera inguratzen dute.*

700.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du, 1.290 km-ko luzera eta 560 km-ko sakonera. Bere sakonera 50-80 m artean ibiltzen da, mendebalderantz handituz. Sakonera gutxiko itsasoa denez, ur hauetan zikloi tropikalak sortzen dira.

Itsaso hau Arafurako itsas plataformaren gainean dago, Sahulgo plataformakoa ere izanez. Azken Glazial Aroan zehar, itsasoaren maila oso baxua zenez, Arafurako plataformak, Carpentaria golkoak, eta Torresko itsasarteak lurrezko zubi handia sortzen zuten, Australia eta Ginea Berria konektatzeko. Honek Asiatik Australiarainoko gizakionen migrazioak errazten zituen. Lur-masa hauei -nahasturik- Sahulgo kontinentea esaten diote. Hemen izkirak eta beste arrain mota batzuk ere arrantza egiten dute.

Nahiz eta itsas ekosistema gehienak kolapsaturik edo mehatxaturik dauden, Arafura itsasoa itsas dibertsitate handia dago. Dena den, hemen isileko arrantza gehiatzen ari da, gainera kontrolaturik ez



dago, ezta araturik ere.

Horrela jarraitzekotan, itsasoa inguratzen duten komunitateek izugarriko erronkak pasatu behar izango dituzte, izan ere, itsas produktuen proteinak behar dituzte bizitzeko.

2002.urtean, Arafurako eta Timorko Foro Aditu sortzen da (ATSEF) gestioi jasangarria egiteko, alde batetik ekonomia-aren puntutik eta bestetik, inguruaren zainketatik.

## EKIALDEKO TXINAKO ITSASOA

*Ekialdeko Txinako itsasoa Ozeano Pazifikoko alde bat da. Txinak, Japoniak, Hego Koreak eta Taiwanek inguratzen dute. 1.200.000 km<sup>2</sup> inguruko azalera du.*



Itsaso honetako iparraldeari -Txinaren eta Koreako penintsularen artean dagoena- Itsaso Horia esaten diote.

Egia esan, Ekialdeko Txinako itsasoa Txinako itsasoaren iparraldea da, eta Taiwan uharteak zatitzen du: iparraldeari Ekialdeko Txinako itsasoa esaten diote eta hegoaldera Hego Txinako itsasoa edo Txinako itsasoa bakarrik esaten diote.

## ITSASO HORIA

*Itsaso Horia, Ekialdeko Txinako itsasoaren iparraldea da eta Ozeano Pazifikoko aldea da. Munduko itsasorik handienetarikoa da, izan ere, 417.000 km<sup>2</sup> bete ditu. Dena den, sakonera gutxiko itsasoa du ezaugarri, izan ere, bere kota handiena 105 m-koa da.*

Txina kontinentalaren eta Koreako penintsularen artean kokatuta dago. Uretari kolorea ematen dioten hareazko partikuletatik dator bere izena. Partikula horiek hara ailegatzen dira Ibai Horiaren bidez -Huang he ibaia-.

Mendebaldeko itsasoa ere esaten zaio, herriko moduz Hego Korean, batez ere.

Itsaso Horiak egiten duen badia erraldoiari Bohai-ko itsasoa esaten diote. Han Ibai Horiak bere urak isurtzen ditu, Shandong probintzia zeharkatu ondoren, eta bere hiriburua -Jinan-. Hai He ibaiak Pekin eta Tianjin zeharkatzen ditu.

Koreako badia ere, Liaoning-en eta Ipar Koreako ipar-mendebaldearen artean, Itsaso Horiakoa da. Liaodongeko penintsulak



Bohaiko itsasoa eta Koreako penintsula banatzen ditu. Dalian hiria bere hegoaldean kokatuta dago.

2007.urtean, CNPCek (Petrolio eta Gasaren Txinako Elkarte), petrolio-meatoki garrantzitsu bat aurkitu zuen, bi milioiko toneladako inguru (kostal-

dean eta Itsaso Horiako plataforma kontinentalen). Petrolio-meatokia Hebei probintzian dago eta 1.570 km<sup>2</sup> ditu, haietatik bi heren itsas plataforman daude.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## JAPONIAKO ITSASOA

*Japoniako itsasoa Ozeano Pazifikoko itsasadarra da. Japoniako artxipelagoaren, (ekialdera) eta Asiako kontinentearen (mendebaldera) artean hedatzen da. 978.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta bere batez besteko sakonera 1.752 m-koa da. Handienak 3.742 m ditu.*

**H**okkaido, Honshu eta Kyushu uharteek eta Sajalin irlek (Errusia) inguratzen dute ekialdetik, eta mendebaldetik, Koreako penintsulak eta Errusiako alde kontinentalak inguratzen dute.

Sakonera gutxiko bost itsasartek beste itsaso batzuekin lotzen dute:

Tartariako itsasartea, Asia kontinentalaren eta Sajalino irlaren artean; La Perouse-ko itsasartea, Sajalin uharten eta Hokkaido uharten artean; Tsugaru-ko itsasartea Hokkaido uharten eta Honsu irlaren artean; Kanmongo itsasartea



Honshu eta Kyushuko uharten artean; eta Koreako itsasartea Koreako penintsularen eta Kyushu irlaren artean. Medebaldeko Kanalak eta Tsushimako itsasartea -Tsushima irlaren inguruan- Koreako itsasartea osatzen dute.

## HEGO TXINAKO ITSASOA

**H**egoaldeko Txinako itsasoa, Ozeano Pazifikoko bazterreko itsasoa da. Singapurretik Taiwago itsasarteraino joaten da -3.500.000 km<sup>2</sup> inguruko azalera-. Hegoaldeko Txinako itsasoko ehunka irla niimiñoek artxipelagoa osatzen ditu.



## SETOKO ITSASOA

**S**etoko barneko itsasoak edo Setoko itsasoak Hoshu, Shikoku eta Kyushu uharteak banatzen ditu, zehazki Japoniako hegoaldean. Itsaso hau Japoniako itsasorekin eta Ozeano Pazifikoarekin konektatzen da. Barneko itsasoa, batera, beste itsaso txiki batzuetan satituta dago: Suo Nada, Iyo Nada, Akai Nada, Bingo Nada, Harima Nada eta Osakako badia (Osaka Wan) Awaji Shima irlako ekialdera.



## FILIPINETAKO ITSASOA



**F**ilipinetako itsasoa Ozeano Pazifikoko mendebaldea da. Zeinek mendebaldera Filipinetako uharteekin eta Taiwanekin mugatzen duen, iparraldera Japoniarekin, ekialdera Mariana uharteekin eta hegoaldera Palaosekin.

1944.urtean, Bigarren Mundu Gerran zehar, AEBen eta Japonaren arteko ontzi-bataila bat gertatu zen hemen -Filipinetako itsasoaren bataila-.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## KORAL ITSASOA

*Koral itsasoa Ozeano Pazifikoko mendebaldean kokatuta dago, Australiako ipar-mendebaldeko kostaldean. Han, jenderik gabeko irlak daude -Koral itsasoaren uharteak-haien artean Wilis, Coringa eta Tregosse irlak aurki daitezke. Koral itsasoak bere ezugarri nabargarrietatik bere izena hartzen du, Koral-hezia, zein munduko koralezko arreziferik handiena baita.*

**E**rakunde Hidrografiko Nazionalaren ustez, konbentzionalki, Tasmaniako itsasoaren eta Koral itsasoaren artean muga jartzen da, Queensland-en eta Hego Gales Berriaren artean. Australiako iparraldean kokaturik dauden irla talde txiki batzuek eta koralezko arrezifeek Koral itsasoaren irlen lurraldea osatzen



dute, gehienak jenderik gabekoak dira baita tropikalak ere. Irla hauek milioi bateko km<sup>2</sup>-tik hedaturik daude, baina azaleratutako aldeak bakarrik 8 km<sup>2</sup> ditu. Wilis irlak garrantzitsuenak dira, eta irlarik nagusienean, Wilis-en, meteorologia-estazioa dago, denboraldiko populazioarekin.

1969.urtean Koral itsasoko uharteetako Aktak lurraldea sortu zuen eta 1997an hedatu zen Middleton eta Elizabeth arrezifeak, hegoalderago, sartzeko. Lurraldea Australiaren ondasuna da eta Canberratik Ingurune Ministerioa administratzen du, bisitarien ekintzak kontrolatuz.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## TASMANIAKO ITSASOA

*Tasmaniako itsasoa Ozeano Pazifikoko hego-mendebaldera kokatuta dago, Australia kontinentetaren eta Tasmaniako irlaren artean (mendebaldera) eta Zeelanda Berriko Ipar Irlaren eta Hego Irlaren (ekialdera) artean dago.*

Itsaso honek Tasmaniako irlatik bere izena hartzen du. XVII. mendean, Abel Tasman esploratzaile holandarrek aurkitu zuen. Gero, 1770. urteko hamarkadan James Cook esploratzaile britainiarrek Tasmaniako itsasoa zehatz-mehatz esploratu zuen. Alejandro Malaspinaren espedizioak ere 1793. urtean hemengo urak zeharkatu zuen, Doubtful Sound-en (Zeelanda Berriko uharteak) eta Sydney-n ainguratu.

Nazioarteko Hidrografia Erakundearen ustez, konbentzionalki Tasmaniako itsasoaren eta Koral itsasoaren arteko muga Queens-



Lord Howe irla.

landen eta Hego Gales Berriaren artean jartzen da. Tasmaniako itsasoan uharte talde batzuk daude, Australiako eta Zeelanda Berriko kostaldetik urrun. Garrantzitsuenak hauexek dira: Lord Howe, Piramide de Ball eta Norfolk uharteak, Tasmaniako itsasoko ipar muturrean, justu Koral itsasoaren mugan.



## SALOMON ITSASOA

*Salomon itsasoa zabala da, Ozeano Pazifikoko hego-mendebaldera kokatuta dago. Salomon uharteetan, Bismark artxipelagoaren, Ginea Berriaren eta Koral itsasoaren artean dago. Bere izena Salomon uharteetatik dator. 720.000 km<sup>2</sup>-ko azalera du.*

Sakonera handiko itsasoa da. Hemen Britainia Berriaren fosa (iparraldean) nabarmentzen da, 9.140 m-ko sakonera du, baita Salomon uharteetako sakonunea (erdialdean) eta San Kristobal fosa (hego-ekialdean) ere.

Hemengo hiririk nagusiena Honiara da, Salomon uharteetako hiriburua, Guadalcanal irlan kokatuta.

Bigarren Mundu Gerran



zehar, Pazifikoko bataila asko gertatu ziren itsaso honetan.

## BISMARCK ITSASOA

*Bismarck itsasoa Ginea Berriko uhartearen, hego-mendebaldera, eta Bismarck artxipelagoak egiten duen arkuaren artean dago, zeinek Ozeano Pazifikotik banatzen duen. Hegoaldeko pasabide bat Salomon itsasoarekin konektatzen da, Ginea Berriaren eta Britainia Berriaren artean.*

XIX. mendean Otto von Bismarck kantzilerren ohoretan izena eman zioten. Garai horretan Salomon uharteak eta Guillermo erregearen lurraldea, Ginea Berriaren, kolonia alemaniarrek ziren (Ginea Berria Alemaniaren izenekoak).

II. Mundu Gerran zehar, Japoniak



ontzi-porrota jaso zuen Bismarck Itsasoaren batailan.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## CORTES ITSASOA

*Kaliforniako golkoari Cortes itsasoa esaten diote. Ozeano Pazifikoko luzapen bat da, Kalifornia Behereko penintsularen eta Sonora eta Sinaloa-ko estatuen artean, Mexikoko iparraldera, dago. 1.203 km-ko luzera du eta 92-222 km inguruko zabalera du. Bere ipar muturrean Colorado ibaiaren bokala dago. Munduko marearik handienak ditu, izan ere 9 metro baino gehiago dituzte.*

**G**eografikoki, Cortes itsasoa klima subtropikaleko eskualde batean dago, horregatik urteko klima-aldaketa handiak sortzen dira, batzuetan egun berean.

Neguan zehar, iparraldean tenperatura oso jaisten da, izozteak sortuz. Udan, eta jadanik hegoaldean, ekaitz tropikalak agertzen dira. Cortes itsasoaren batez besteko tenperatura 24°C-koa da. Iparraldean euri gutxi egiten ohi du eta beti urria eta maiatza bitartean gertatzen dira.



Itsaso honetako hondoa oso malkartsua da, munduko malkartsuenetakoa.

Urpeko haranek eta arroilek bilerantz zeharkatzen dituzte, 3 km-ko sakonera dituzten amildegia eratuz. Batezbestekoz, kilometro bat baino gehiagoko sakonera du eta bere alderik sakonenak 3.400 m-ra arte ailega daitezke. Erliebe malkartsu honi esker, munduko marearik garrantzitsuenetarikoa sortzen dira, batzuetan sortzen diren gorabe-



herek 9 metro edo gehiago dituzte.

Mexicali hiritik hegoaldeko 200 km-ra -Kalifornia Behereko hiri-burua- San Felipe portu txikia dago (Cortes itsasoko iparraldeko eskualdean).

1539.urtean, Frantzisko de Ulloak fundatu zuen, XX.mendearen 40ko hamarkadan, arrantzaleen komunitate bezala sortzen hasi zen, eta gaur egun turismo-gune nagusia da. Hemen bere hondartzak aipatu behar da, non munduko marearik handienetarikoa gertatzen diren.

San Felipetik hegoaldera, Cortes itsasoaren lur-bide bat paraleloan ibiltzen da, 180 km San Gonzaga badiaraino. Ibilbide honen zehar, haondartza askotatik pasatzen da, gehienak bakarriak. "Puertecitos" herriak bakarrik (San Felipe herritik hegoaldeko 80 km-ra) turismo-zerbitzuak ditu. Han, hondartzei onura ateratzeko hondartzetan kanpa-



tzea onena da. San Luis Gonzagaren badia oso polita da, goi mailako hondartzekin eta turismo-zerbitzu batzuekin. Itsaso honetan Kalifornia Behereko estatuko uharte batzuk daude, este baterako, Angel de la Guarda, Montaguee Gore, Consag, El Huerfanito, Miramar, Colorado, Encantada, Pomez, San Luis, Mejia,







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

>>CORTES ITSASOA



Kaliforniako golkoa.

Granitos, Navio, Pelicano, Alcatraz, Coronadito, Smith, Pond eta Los Angelesko badiaren barruan dauden irla taldeak. Hego Kalifornia Behereko estatuan hauek daude: Carmen, Cerralvo, Coronados, Espiritu Santo, Monserat, Partida, San Diego, San Frantzisko, San Jose, San Marcos, Santa Catalina, Santa Cruz eta Sonorako estatua (Tiburon uhartekoa, zein Mexikoko irlarik handiena da, 1.208 km2 ditu).

Bere kostaldean porturik garrantzitsuenak dira: San Felipe, La Paz, San Jose del Cabo, Puerto Peñasco, Guaymas, Santa Rosalia, eta Topolobampo.

**Cortes itsasoaren jatorria**

Cortes itsasoaren eraketa duela 130 milioi urte hasi zen, Mesozoikoaren erdi erdian, izan ere, lur-masa (gero

Kalifornia Beherea izango zena) kontinentetik banatzen hasi zen, egungo San Andres failaren mugimendu tektonikoengandik. Duela 4,5 milioi urte, Cortes itsasoa egungo ezaugarriak hartu zituen. Orduetik orain arte, penintsula 650 km mugitu da eta mugimenduak jarraitzen du. Kalkulatzen da, milioi batzuk barru, kontinentetik total banatuko dela, irla bihurtuz, honekin, XVII.mendearen nabigatzaileek pentsatzen zutena egia bihurtuko da. Cortes itsasoa bere izena hartu zuen Hernan Cortes konkistatzaile espainiarretik. 1539.urtean Frantzisko de Ulloak



izena jarri zion Hernan Cortes ohoretan. Haiseran Ulloak pentsatu zuen golkoa Aniango itsasarterako bidea zela, eta Ozeano Pazifikoa Ozeano Atlantikoarekin konektatzen dela. 1540.urtean, Melchor Diazek esplorazio zehatzak egin zituen eta Colorado ibaia ere esploratu zuen.

**Uharte hauek Gizateriaren Ondaretzat hartuta**

2005eko uztailaren 15ean Cortes itsasoaren uharteak -Kalifornia Beherearen penintsulakoa- Gizateriaren Ondarea deklaratu zieten natura ondasun-kategorian. Alde hau turismo-gunea da, izan ere, arrokazko eraketa bitxiak izan ezik, balea mota batzuk ere ditu. 244 uhartek eta uharte hauek osatzen dituzte eta munduko itsas ugaztun-espezieen % 40ri eta zetazeo-espezieen hereni babes ematen dizkiete. Haien artean 4.550 itsas omogabe-espezie daude, 181

hegati-espezie, 695 landare-espezie -hauetatik 28 espezie eskualde honetan bakarrik aurki daitezke-. Gainera munduko leku bakarra da non hareazko urpeko ur-jauziak dauden. 1972.urtean CSPMa egin zuten ondare naturala eta kulturala identifikatzeko eta gero bere babes bermatzeko, nazioarteko kooperazio-mekanismoen bidez. Baina beti herrialdeen subiranotasuna errespetatuz. Orain irla hauek erreserbak dira, Galapago uharteak eta Australiako Koral-Hesia bezala. Cortes itsasoa eta bere irlak espezieen ikerketarako laborategi naturala da. Hau dela kausa Jaques Cousteau ozeanografo frantziarrak esaten zuen itsaso hau "Munduko akuarioa" zela. Gainera, planeta honetako ozeanoetan gertatzen diren prozesu ozeanografiko gehienak leku honetan ikus daitezke, handik dator kio garrantzia.







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

## GRAUKO ITSASOA

*Grauko itsasoa Peruko menpearen titulu ofiziala da Ozeano Pazifikoan. 1.140.686, 8 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Sortzen duen kostaldeko zerrendak 3.079,50 km ditu. Peruko itsasaertzeko alde bat eta 200 miliako distantziako irudizko lerro bat (370,4 km) osatzen ditu (kostaldeko punturik hurbilenetik). Itsaso honek baliabide hidrobiologiko eta mineral batzuk ditu.*

**A**ntzinatean Peruko herriaren bizitza eta garapena itsaso honekin eta bere baliabideekin etortzen zen. Hau asaltzeko Paraka herriaren saria ikus dezakegu, agian munduko sarerik zaharrena, izan ere, 9.000 urte ditu, honi gaineratu behar diogu monumentu arkeologiloetan aurkitu zituzten arraunak (Chincha kulturakoa) eta inken aurreko zuntzetan eta zeramika inketan animalien eta itsas hegaztien arte-irudikapenak.

Grauko itsasoak ezau-garri berezi batzuk ditu: zooplankton- eta fitoplankton-masa garrantzitsuak, non 600 arrain-espezie baino gehiago eta itsas ugaztun asko, moluskuak eta krustazeoak baititu. Zeuden natura baliabideak zaintzeko, babesteko eta arautzeko, Peruk bere subiranotasuna eta



jurisdizioa bere kostaldeetako itsasoaren 200 miliara arte hedatu zituen, horretarako abuztuaren 1eko 781/1947 Goren-Dekretua argitaratu zuen. Horrela Txilerekin herrialde aitzindari bihurtu zen "200 miliako tesia" egiteko. Tesia hartuta ondoren nazioarteko araua izango zen: 1982ko Itsasoaren zuzenbideari buruzko Nazio Batuetako Konbentzioan. Hau guztia ez zen halabeharrez, hamarkadetan zehar egindako



nazioarteko defentsa zehatzaren emaitza baino (banakakoz ez ezik, Hego Pazifikoko Batzorde Iraunkorreakin ere).

### Bi eskualde geografiko

Grauko itsasoan bi alde ondo desberdin ikus daitezke: hego-erdialdeko eskualdea, eta ipar eskualdea.

Lehenengoa Illeskasko penintsulatik, Piurako hegoaldera, Txileko mugaraino hedatzen da. Batera eskualde honek hiru fenomeno geografikoak jasan behar ditu: Humboldt-lastera, Hego







OZEANO PAZIFIKOKO ITSASOAK

>> GRAUKO ITSASOA

Pazifikoko anti-zikloia, eta itsas ur-azaleratzearen fenomenoak. Erdialdeko eta hegoaldeko eskualdeak ur hotzak ditu -beste aldeekin konparatu ondoren-. Hoztasuna sakonera handiko igoe-ragatik da, izan ere, ur hauetan eguzkiaren



argiak ez du eraginik eta gero itsasoaren azalera joaten dira, azaleratze-fenomenoa sortuz. Fenomenoa kostaldetik gertu gertatzen da hiru fenomenogatik: lurraren errotazioaren fenomenoak, alisioen bultzaketa, eta azaleko eta sakonerako itsas uraren arteko tenperaturaren desberdintasuna. Eskualde honetan Peruko urak berdexka-kolorekoak dira, izan ere, 200 milietan fitoplakton asko ikus daiteke. Hurrunago (200 milietatik at), ur ozeanikoak tropikalak dira eta itsas urdin-kolorekoa, jadanik fitoplaktonik ez dagoelako. Itsas eskualdeetako urak gaziak dira, gatz-mineralen kopuru handia dutelako. Litro ur bateko 34-35 gr-ko gazitasuna,

baina iparraldeko gazitasuna hegoaldekoa baino handiagoa da.

**Ipar eskualdea**

Ipar eskualdea Illeskasko penintsularen iparraldera dago eta Ekuadorreko mugaraino hedatzen da. Bere urak tropikalak dira, izan ere, Ierro ekuatorialaren ondoan daude, eta La Corriente del Niño izenekoaren ondoan dago (ur bero-koak).

